

# LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



## Laugarren Hiruhilabetea 2017

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

 Lanbide



*Txosten honek, 2017ko laugarren hiruhilabetekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzaren eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erkundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).*

## **Edukia**


Testuinguru Ekonomikoa .....	4
Lanbiden erregistratutako langabezia .....	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzaren .....	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA) .....	8

## Testuinguru Ekonomikoa

**2017ko laugarren hiruhilabetekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %3,0ko hazkundera izan du, eta 2018 urteari dagokionez, urte arteko %2,5eko hazkundera aurreikusten da**

Eustat-ek aurreratutako datuen arabera, 2017ko laugarren hiruhilekoan **EAEko BPGak** urte arteko %3,0ko hazkundera izan du, aurreko hiruhileko maila berdina mantenduz. 2016ko laugarren hiruhilabetekoan lortutako tasarekin alderatuta, hamarren bat gehiagoko tasa erregistratu da.

Balio erantsi gordinari egindako ekarpena positiboa izan da ia sektore guztien aldetik. Salbuespen bakarra lehen sektorea izan da. Horrela, 2017ko euskal ekonomiaren bilakaera, sendotzen ari den testuinguru ekonomiko batean kokatu daiteke.



Iturriak: Eustat, INE, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2017ko urtarrila eta otsaila" txostenak


**Europako** Ekonomiari dagokionez, egonkortze prozesu bat nabari da urteko laugarren hiruhilekoan: urte arteko bariazioa %2,7koa izan da (3 hamarren Euskadiko tasaren azpitik), hirugarren hiruhilekoan lortutakoa baino (2,8%) apur bat baxuagoa. Izan ere, aurreko hiruhilekoan lortutako tasa izan da azken bost urteetan lortutako tasarik altuena.

Hiruhileko honetan ere, azpimarratu beharra dago **Espainiako** ekonomiaren bilakaera sendoa. %3tik gorako hazkunderak erregistratu dira aurreko hamaika hiruhilekoetan, 2017ko azken hiruhilekoan %3,1eko hazkundera izanik (Euskadin baino 1 puntu hamarren gehiago).

Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) urtarrilean argitaratutako txostenaren arabera, munduko ekonomiaren dinamismoa, 2018 eta 2019 urteetarako aurreikusitako tasetan islatzen da: %3,9ko tasa aurreikusten da urte bietarako. Datu horiek ekonomiaren goranzko zuzenketa bat erakusten dute, batez ere, ekonomia aurreratuen eboluzio onak eraginda.

Beheko taulan adierazten den bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako 2018 urterako egindako BPG-aren aurreikuspena %2,2koa da. Espainiari dagokionez, NDFk 2018 urterako egindako aurreikuspena %2,4koa da (2 puntu hamarren gehiago).

Euskadiri dagokionez, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2017 eta 2018 urteko aurreikuspen ekonomikoak berrikusi ditu. Eguneratutako aurreikuspenak, %2,9ko hazkunde tasa mantentzen du 2017 urterako eta goranzko zuzenketa bat 2018 urterako, %2,5eko hazkunde tasa aurreikusiz. Hau horrela izanda, dinamismo ekonomikoaren moderazioa bat aurreikusten da 2018 urteko lau hiruhilekoetarako.




Iturriak: Eustat, INE, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2017ko urtarrila eta otsaila" txostenak

## Lanbiden erregistratutako langabezia

**Lanbiden erregistratutako langabe kopurua jaitsi egin da laugarren hiruhilekoan (4.499 pertsona gutxiago), hiruhileko arteko jaitsiera %3,5ekoa izanik (3.885 emakume eta 614 gizon gutxiago)**

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako langabe kopurua jaitsi egin da 2017ko laugarren hiruhilekoan (4.499 pertsona gutxiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 127.547 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko jaitsiera %3,5ekoa izan da eta urte arteko jaitsiera %6,3koa.




*Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa*

**Sexuari** dagokionez, Lanbiden erregistratutako emakumezko langabetu kopurua murriztu egin da hiruhileko honetan (-3.885), kopurua guztira 70.807 izanik. Gizonezkoen kasuen, erregistratutako langabetuen kopurua 614 pertsonatan jaitsi da, kopurua guztira 56.740an kokatuz.

**Adinari** dagokionez, langabetuen murrizketarik handiena 25-34 urte bitarteko segmentuan gertatu da (1.483 langabetu gutxiago). 45-54 urte arteko langabetuen kasuan, jaitsiera 1.146 pertsonakoa izan da eta 35-44 urte artekoen kasuan -673koa.

**Lurralde Historikoei** dagokionez, Araba eta Bizkaia nabarmentzen dira: lehenengo kasuan jaitsiera %3,8koa izan da, langabetu kopurua 20.639an kokatuz, eta bigarren kasuan jaitsiera %3,7koa izan da, langabetu kopurua 72.936 pertsonatan kokatuz. Gipuzkoan ere langabetu kopurua jaitsi egin da, baina gutxiago: %2,4, 33.972 langabetearekin geratuz.



*Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa*

**Jatorriari** dagokionez, Lanbiden erregistratutako langabetuen kopurua 4.670 pertsonatan jaitsi da bertakoen artean, eta 171 pertsonatan atzerritarren artean. Beherakada %4,2koa izan da lehenengo kasuan eta %0,8koa bigarren kasuan.


**Ikasketak** mailaren arabera, langabezia murrizketa handiena izan dutenak unibertsitate ikasketak dituztenak izan dira (hiruhileko arteko -%10,8). Talde horren ostean, langabezia jaitsiera handiena hurrengo ikasketak dituztenen artean gertatu da: Lanbide Heziketako ikasketak (-%4,9), Batxilergoa (-4,1%) eta Derrigorrezko ikasketak (-1,3%).

**Jarduera Ekonomikoari** dagokionez, hiruhileko honetan langabetuen erregistroak jaitsierak izan ditu ia sektore guztietan, batez ere, termino absolutuetan hurrengo sektoreetan: (i) Jarduerak lurraldez kanpoko erakundeetan (-805); eta (ii) Etxeak, ondasun eta zerbitzuen ekoizle bezala, erabilera propiorako (-535). Bestalde, azpimarratu beharra dago sektore batzuk izandako igoera: (i) Nekazaritza, abeltzaintza (+488) eta (ii) Basogintza eta ustiapena (+306).

## Afiliazioa Gizarte Segurantzari


### Gizarte Segurantzari afiliatutako pertsona kopurua %2,0 hazi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, guztira 940.000 pertsona gaindituz

EAEn 2017ko laugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzari afiliatutako pertsona kopurua 940.000 baino altuagoa izan da. Aurreko urteko hiruhileko guztiak kontuan hartuta, afiliazio kopuru handiena lortu da. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, iguera 18.928 pertsonakoa izan da (+%2,0) eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta, iguera 18.696 pertsonakoa izan da (+%2,0).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

**Sexuari** dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %53a gizonezkoak dira eta %47a emakumezkoak.



Iturria: Enplegua eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

**Lurralde Historikoei** dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50). Gipuzkoan, %33koa izan da eta Araban %17koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 11.102 afiliatu gehiago erregistratu dira (+%2,4), Gipuzkoan 4.174 (+%1,3) eta Araban 3.653 (+%2,4).


**Jarduera Ekonomikoari** dagokionez, laugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik (%9,1); (ii) Hezkuntza (%7,5); (iii) Elikadura eta edarien zerbitzuak (%6,3); (iv) Osasun jarduerak (%6,3) eta (v) Administrazio Publikoa eta Defentsa, Derrigorrezko Gizarte Segurantzari (%5,1). Laugarren hiruhileko datuak hirugarren hiruhilekoekin alderatuta, afiliatu gehien irabazi dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Hezkuntza (+5.904); (ii) Kirol ekintzak, aisialdi eta denbora libreko jarduerak (+1.664); eta (iii) Asoziazio – jarduerak (+1.536). Bestalde, afiliatu gehien galdu dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Enpleguarekin lotutako jarduerak (-3.320) eta (ii) Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta antzeko zerbitzuak (-2.820).

**Jatorriari** dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzari batu diren atzerritarren kopurua egonkor mantendu da, %0,2ko jaitsierarekin aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 57.479koa izanik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %6koa da eta afiliatu autoktonoena %94koa. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioak %1,3ko jaitsiera izan du eta emakumezkoenak %1,1ko iguera. Lurralde Historikoei dagokienez, Bizkaian atzerritarren afiliazioak iguera izan du (+%2,6) eta Araban eta Gipuzkoan, ostera, jaitsiera (-%6,7 eta -%0,3, hurrenez hurren).

## Kontratututako pertsonak eta kontratuak

**Laugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duten pertsona kopurua %6,5 jaitsi da eta sinatutako kontratuen kopurua guztira 250.079koa izan da.**

2017ko laugarren hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 130.698koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %6,5 gutxiago. Jaitsiera handiagoa izan da gizonezkoen artean (-8,7%), emakumezkoen artean baino (-4,0%).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa


**Ikasketa-mailaren** arabera, kontratatutako pertsonen %43,9k Derrigorrezko ikasketak ditu, %22,5ek Batxilergo ikasketak, %17,1ek Unibertsitateko ikasketak eta %16,0k Lanbide Heziketa.

**Adinari** dagokionez, 2017ko laugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %30,3ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiak izan dute jaitsiera kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez: jaitsiera handiena izan duen taldea 25 urte baino gutxiagoko pertsonena izan da (-18,4%). Jarraian, 25-34 urte bitarteko taldeak izan du jaitsiera handiena (-4,4%).

**Jatorriari** dagokionez, kontratatutako pertsonen %86,4a bertakoa da eta %13,6k atzerriko nazionalitatea du. Atzeritarren artean, nazionalitate nabarmenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (%33,8), Europar Batasunekoak eta kanpokoak (%26,2) eta Afrika iparraldekoak (%16,3).

Laugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari dagokionez**, EAEn kokatutako lanpostua duten 250.079

kontratu erregistratu dira (kontratututako pertsonak baino 1,9 gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zifra honen hazkundera %3,3koa izan da.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

**Lan - kontratu motaren** arabera, joera arruntak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %7,6a kontratu mugabeak izan dira eta %92,4a aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %41,1a kontratu partzialak izan dira.

**Lurralde Historikoei** dagokienez, Bizkaia izan da lurralde bakarra kontratazioei dagokienez hazkundera izan duena, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+%10,8). Arabak eta Gipuzkoak izandako jaitsierak %8,1 eta %1,3koak izan dira hurrenez hurren. Gainera, Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%53; 132.872). Jarraian, Gipuzkoa (%28, 71.028) eta Araba (%18, 46.179).

**Jarduera Ekonomikoari** dagokionez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) ostalaritza (%15,7); (ii) manufaktura industria (%14,1); (iii) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%12,6); (iv) administrazio jarduerak (%12,2) eta (v) merkataritza (%11,5). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%23,0) eta emakumezkoen artean osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%19,5).



## Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

### Langabezia tasa %11,1ekoa izan da eta enplegu tasa %66,7koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** %66,7koa izan da (%69,8 gizonezkoen kasuan eta %63,6 emakumezkoen kasuan). Okupatu kopurua gutxira 915.100koa izan da, aurreko hiruhilekoaren kopuru antzekoa (+%0,1). Gizonezkoen kasuan, okupatu kopurua 479.800ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %1,3 gutxiago) eta 435.200koa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %1,6 gehiago).

**Adinari** dagokionez, enplegu tasa handiena 35-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%81,9) 275.800 okupaturekin. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%17,7) 29.000 okupaturekin. Laugarren hiruhilekoan eboluziorik onena izan duen taldea 55-64 urte bitartekoa izan da, 3.200 okupatu gehiagorekin (+%1,9).

**Lurralde Historikoei** dagokienez, Gipuzkoan izan da enplegu tasarik handiena (%68,6), jarraian Araba (%66,9) eta Bizkaia (%65,5). Halaber, joerarik onena Bizkaian izan da laugarren hiruhilekoan, %0,4 okupatu gehiagorekin.

**Jarduera Ekonomikoari** dagokionez, okupatu gehien dituzten sektoreak hurrengoak dira, hurrenez hurren: Zerbitzuen sektorea (%71,6), Industria sektorea (%21,9), Eraikuntza sektorea (%5,3) eta Lehen sektorea (%1,1).

**Kontratu motari** dagokionez, soldatapeko kontratuen %70,6 mugagabeak – finkoak izan dira Euskadin eta %29,4 aldi baterako kontratuak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratu mugagabe - finkoen kopurua %0,6 igo da eta aldi baterako kontratuen kopurua %2,4 hazi da. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen %82,3 lanaldi osokoak izan dira eta %17,3 lanaldi partzialekoak.

Laugarren hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** %11,1ekoa izan da (%10,8 gizonezkoen artean eta

%11,4 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 113.900 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %4,3 gutxiago. Emakumezkoen kasuan, beherakada 6.600 pertsonakoa izan da, eta gizonezkoen kasuan, ostera, hazkundea 1.400 pertsonakoa izan da.

**Adinari** dagokionez, langabezia tasarik txikiena 45-56 urte bitarteko taldeari dagokio (%9,2) eta langabezia tasarik altuena, ostera, 16-24 urte bitarteko taldeari (%17,1). Hala ere, azken talde hau izan da eboluziorik onena izan duena 2.200 langabetu gutxiagorekin (-%26,8) aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

**Lurralde Historikoei** dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik txikiena (%8,4), jarraian Araba (%10,8) eta Bizkaia (%12,8). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabezia tasaren eboluziorik onena Araban izan da, % 12,6ko jaitsierarekin. Aitzitik, langabezia tasaren eboluziorik txarrena Bizkaian izan da, %0,1eko jaitsierarekin.

**Langabeziaren iraupenari** dagokionez, langabetuen %38,5ek urte bat baino gutxiago darama langabezi egoeran eta %61,5ek urte bat baino gehiago darama egoera horretan.

**Ikasketa – mailaren arabera**, INE-ren datuen arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri) langabetuen %41ek derri-gorrezko ikasketak ditu eta %31k Unibertsitate ikasketak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetuen beharpenik handiena Unibertsitate ikasketak dituzten taldean izan da (%-22,2).

**Jatorriari** dagokionez, INE-ren datuen arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri), langabetuen %81a bertakoa da. Jarraian Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten langabetu atzerritarrak (%18) eta Europar Batasunekoak (%1).